



SEDAZIODUN EKOKARDIOGRAMA TRANSESOFAGIKOARI BURUZKO INFORMAZIO-ORRIA

Zertan datza proba?

Bihotza ultrasoinuen bidez bistaratzean datza, hestegorrian eta urdailean jartzen den eta sedaziopean egiten den zunda bat erabiliz.

Nola prestatu behar dut neure burua probarako?

- Proba egin aurreko gauean afari arina hartu ahal izango duzu 24:00ak baino lehen. Ondoren, URA eta ESNERIK GABEKO infusioak soilik hartu ahal izango dituzu ospitalera joan baino 2 ordu lehenago.
- **OHIKO MEDIKAZIOARI DAGOKIONEZ:**
 - Goizean, hartu **zure ohiko medikazioa**, baita tentsioarena, bihotzarena, arnasketarena, neurologikoarena, antiagregatzaileena, antikoagulatzaileena... ur pixka bat hartuz.
 - Diabetikoa bazara eta honako tratamendua baduzu:
 - **PILULAK:**
 - Ez duzu gosalduko eta ez duzu hartuko gosariko diabetesaren aurkako pilula (gainerako pilulak hartu, aurreko atalean adierazi bezala).
 - **INTSULINA:**
 - Intsulinareneko ohiko dosia aurreko gauean.
 - Gaueko baraualdia.
 - EZ eman INTSULINA AZKARRIK prozeduraren aurretik.
 - Intsulina basala goizean ematen baduzu, eman ohiko intsulina basalaren dosia (Levemir®, degludek, glargina) prozeduraren ondoren.
 - Etxera itzultzean, ohiko tratamenduari ekingo diozu berriro, bazkariarekin batera.
 - Komenigarria da probaren egunean zu zaintzeko ardura izango duen heldu batek lagunduta joatea.
 - Ukipen-lenterik gabe joango zara, azazkaletako esmalterik, gorputzeko kremarik eta makillajerik gabe.
 - Arropa eroso jantzita eta bitxirik gabe joango zara.
 - Ordezko hortzeria baduzu, ekarri ahal izango duzu, baina proba egitean kendu beharko duzu.
 - Proba egin baino 8 ordu lehenago, gutxienez, ez duzu erreko.
 - Ez ahaztu zure osasun-dokumentazioa ekartzea: NANA eta osasun-txartela.



Non egingo didate proba?

5. solairuan, AUO-Txagorritxuko A eremuan.

Nola egingo didate proba?

Proba sedaziopean egiten da, eta helburua prozedura diagnostikoa onartzea da, mina eta/edo antsietatea saihesteko. Horren arduraduna anestesiolegoa da; beraz, berak balioetsiko du aldez aurretik, eta zure bizi-konstanteak zainduko ditu prozedura osoan.

Ohatilan etzango zaituzte, gerritik gora biluzik, eta elektrodoak jarriko zaizkizu azterketa osoan elektrokardiograma (EKG) ikusteko, baita tentsio arteriala hartzeko mahukatxo bat eta atzamarrean saturimetro bat ere.

Erizainak zain-bide bat jarriko dizu besoan, prozedura osoan behar duzun medikazioa emateko. Kardiologoak zunda bat sartuko du ahotik hestegorriraino, zure bihotzeko irudiak hartzeko.

Azterketaren iraupena, gutxi gorabehera, aldakorra da, 30-60 minutukoa.

Zer egin behar dut probaren ostean?

- Itxarongelan egongo da sedaziotik suspertu arte.
- Ezingo duzu hurrengo egunera arte gidatu.
- Proba egin ondoren, nahiko atsedan hartuko duzu (sofa, ohea, paseoa) eta ez duzu erabaki garrantzitsurik hartuko.
- Ezingo duzu bazkaldu, probaren ondoren 2 ordu igaro arte.